

URRETXUKO SANTA ANASTASIA JAIETAKO IV. ARGAZKI LEHIAKETA OINARRIAK

PARTAIDEAK: Nahi duten pertsona guztiek parte hartu ahal izango dute.

Kategoriak: haurrak, 16 urte barne, eta helduak.

GAIA: 2018ko Santa Anastasia Jaiak. (Jai egitarauan sartutako guztia).

AURKEZPENA: Irailaren 25eko arratsaldeko 2ak arte.

OBRAK LEHIAKETARA AURKEZTEA: Pertsona bakoitzak gehienez 3 argazki aurkeztu ahal izango ditu. Lanak JPG formatuan bidaliko dira, argazkielkarrea@gmail.com helbidera. Lanak bidaltzeko mezu elektronikan, egilearen hainbat datu adieraziko dira, hala nola izen-abizenak, adina, herria, telefono-zenbakia.

Mezu elektronikoa jaso izanaren baieztapena bidaliko da, hura jaso dela frogatzearren.

Argazkiak edita daitezke.

Artxiboa BEREIZMEN TXIKIAN bidali beharko da. Formatu horizontala badu, alde handienak gehienez 1024 pixel edukiko ditu, eta formatu bertikala badu, 768 pixel.

Epaimahaiaren erabakia jakin ondoren, eta argazkiak inprimatzeko asmoarekin, artxibo digitala BEREIZMEN HANDIAN aurkezteko eskatuko die antolakuntzak irabazleei.

EPAIMAHAIA: Gutxienez hiru pertsona izango dira, argazkigintzan ospe handikoak.

EPAIMAHAIAREN IRIZPIDEAK: Argazki onena baloratuko da, eta egile berak ezingo du saria jaso behin baino gehiagotan.

ERABAKIA ETA SARI BANAKETA: Erabakia hartzeko saioa eta sari banaketa jendaurrean egingo dira. Erabakia hartzeko saioa 2018ko irailaren 29an izango da, eguerdiko 11etan, Urretxuko Kultur Etxean. Sari banaketaren ekitaldia, berriz, 2018ko urriaren 5ean, Urretxuko Udaletxean, arratsaldeko 7etan.

SARIAK: Honako sari hauek izango dira:

- Argazki onenari: 200 € eta garaikurra
- Bigarren argazki onenari: 150 €
- Hirugarren argazki onenari: 125 €
- Herriko argazki onenari: 100 € eta garaikurra
- Gaztetxoek argazki onenari: 50 €
- Gaztetxoek bigarren argazki onenari: 30 €
- Gaztetxoek hirugarren argazki onenari: 20 €

Bide batez, aurkeztutako argazkiak 2019ko Santa Anastasia Jaietako egitarauan erabili daitezke.

Argazki lehiaketan parte hartzen duenak goitik behera onartzen ditu oinarri hauek. Oinarriotan jaso gabeko gorabehera oro antolatzaileek erabakiko dute. Sariren bat irabazitako lanak antolatzaileen esku geratuko dira. Lan guztien erabilera eta erreproduzio eskubidea beretzat erreserbatuko dute antolatzaileek, lanen jatorria aipatuz beti ere.

**ARGIBIDEREN BAT NAHI IZANEZ GERO, EDO INFORMAZIO ZABALAGOA, URRETXUKO
KULTUR ETXEAREKIN JARRI BEHAR DA HARREMANETAN. Tel.: 943 03 80 88**